

Bake prozesu formalaren aldarrikapena

Ondorengo orrietan irakurgai den konferentzia Brian Currinek Europar Batasunean emana da, Bruselan, 2008an. Irakurlearentzat interesgarria dela iritzita berreskuratu eta itzuli dugu, garai berriak ate-joka, Hegoafrikan eta Ipar Irlandan hemen zail diruditen zenbait gai nola konpondu zituzten oso argi azaltzen baitu abokatu hegoafrikarrak bertan.

Bake prozesuak arrakasta izateko, guztiz beharrezkoa ez bada ere, azpimarratzen du oso positiboa dela izaera formala edukitzea, baita konpondu beharrekoa konpontzeko, bi aldeetan benetako gogoia eta nahia izatea ere. Ezker abertzalearen legalizazioaz gain, bake prozesu formal baten aldarrikapena egiten du bertan.

Brian Currinek 20 urte baino gehiago daramatza bateko eta besteko gatazketan esku hartzen. Bere herrialdean lehenbizi, apartheidaren aurkako posizio argia hartu zuten zuri bakanetakoa izaki, bertako bake prozesuan jarrera aktiboa izan zuen, erregimenaren aurka ari ziren ekintzaile ugari legalki defendatuz, eta gero, Egiaren eta Berradiskidetzearen Komisioan goi mailako ardurak bere gain hartuz. Behin Hegoafrikan egitekoak amaituta, Sri Lankan, Rwandan, Ekialde Hurbilean eta Ipar Irlandan ibili da alde ezberdinak elkarrengana hurbildu nahian, eta askotan, Irlandan adibidez, emaitza arrakastatsuak lortuz. Orain, urteetan bildutako esperientzia Euskal Herriko gatazka bideratzeko aplikatzen ari da.

Hitzaldiaz gain, bi iritzi artikulutan, klabe garbi batzuk ematen dituzte Paul Rios eta Imanol Murua Uriak. Lehenak balizko bake prozesuak nolako egitura izan behar duen aztertzen du, eta bigarrenak berriz, analisi zabalagoa egiten du. Muruaren ustez, aurreko prozesua eta hurrena, oso ezberdinak izango da, eta ETAk bake prozesua baino lehen armak utzi izanak eskema guztiak aldatzen ditu.